

Askotariko materialak birziklatzea



PENTSATU

Egungo gizarteak, batez ere mendebaldeko munduko hiri handiek, gero eta hondakin gehiago sortzen dituzte. Hondakin horiek tratatzea, kasu askotan, zaila eta garestia izaten da, eta ingurumenari kalte egiten diote. Gehienak zabortegetara botatzen dira edo erre egiten dira eta, horrela, beste kutsadura-arazo batzuk sortzen dira.

Birziklatzea ez da krisi horretarako behin betiko irtenbidea, muga ugari ditu eta. Azken urratsa izan beharko luke, **hausnartu, arbuia, murriztu, berrerabili edo konpondu** ostean (gogoratu urrezko 6 arauak).

Hondakinak banantzeko eta gaikako bilketako sistemak erabiltzeko ardura geuri, kontsumitzaileoi, dagokigu zuzenean; hortaz, geure aukera pertsonalak zehaztuko du produktu bat birziklatuko den ala ez. [Fitxa](#)

Pertsona bakoitzak 13 kilo aluminiozko eta latorrizko lata inguru botatzen ditu urtero, hots, 6 milioi lata baino gehiago Espainia osoan; horiekin 17.500 kamioi bete genitzake. Urtero 20 milioi telefono mugikor baztertzen dira gutxi gorabehera, eta asko zuzenean zakarretara joaten dira.

Sortzen ditugun hondakinen % 20 eta % 25 bitartean papera eta kartoia dira. Birziklatutako kartoi tona bakoitzarekin 2 metro kubiko zabortege, 140 litro petrolio, 50.000 litro ur eta 15 zuhaitzen bizitza aurrezten dira.

BAZENEKIEN...

ZABORRAK HAUTATZEA ETA BIRZIKLATZEA

Gero eta produktu gehiago saltzen dira latetan, beiratan, plastikotan, kartoitan edo bestelako materialetan ontziratuta; ontziok zakarretan xahututa geratuko dira banan-banan bildu eta birziklatu ezean.

Zaborra hautatzeak eguneroko keinua izan behar du: birziklatzeko lehen urratsa da. Birziklatzeak ingurumena babesten laguntzen du, lehengaiak eta energia aurreztuz eta airera, uretara eta lurrera isurtzen diren agente kutsagarriak murriztuz. Hori dela eta, oso garrantzitsua da zaborra gaika sailkatzen ikastea, osatzen duten materialak ahalik eta gehien aprobetxatzeko.

Birziklatuz hondakin-kantitatea murriztea lortzen dugun arren, ingurumenean benetan eragin positiboa izango lukeena gure jokabidea aldatzea izango litzateke, hondakinak sortzen dituzten produktuen kontsumoaren ordezkotzat hautabideak bilatuz.

PLASTIKOA BIRZIKLATZEARI BURUZ

Plastikoak mehatxu larria dira ingurumenerako, nagusiki bi arrazoiengatik: mota guztietako produktuetan masiboki erabiltzen dira eta astiro degradatzen dira. Kalkulatzen da 180 urte inguru behar dituztela deskonposatzeko, baina denbora hori plastiko motaren arabera aldatzen da.

8.300 milioi tona plastiko inguru fabrikatu dira haren ekoizpena hasi zenetik, alegia, 1950az geroztik gutxi gorabehera; hori 1.000 milioi elefanteren eta 47 milioi balea urdinen pisuaren baliokidea da.

Munduan ekoitzi den plastiko guztiaren % 9 inguru soilik birziklatu da, % 12 erre da eta % 75 baino gehiago naturan amaitu da.

CÓDIGOS DE IDENTIFICACIÓN DE RESINAS DE PLÁSTICO



Comprobar el símbolo en el fondo del producto o en el etiquetado.

Productos plásticos MAS SEGUROS. 2, 4 y 5



Las botellas marcadas con el código (1. PET ó PETE). Polietileno de tereftalato. Se deben utilizar solamente una vez, en sucesivas veces podría desprender DEHP un ftalato tóxico.

Plásticos que hay que evitar



PVC o Vinilo pueden contener ftalatos

Espuma de poliestireno

Puede contener Bisfenol A



Plastikoaren industriak kode batzuk garatu ditu; normalean ontzien oinarrian ikus daitezke eta gure osasunerako kaltegarrienak direnak identifikatzeko eta saihesteko bidea ematen digute. Gaur egun, kontzientziario handia dago plastikozko poltsa tradizionalei buruz, azalera handietan horien ordeztu hautabide iraunkorrak erabiltzen ari baitira, adibidez, errafiazko poltsak edo poltsa birziklagarriak.

Pentsatu behar dugu azken horiek, bioplastiko direlakoak, ez direla diruditena bezain irtenbide jasagarria eta ez dutela hondakinak sortzearen arazoa konpontzen; izan ere, erabili eta botatzearen kulturari eusten diote.

LATAK BIRZIKLATZEARI BURUZ

Mundu guztian milioika lata kontsumitzen dira. 10 latatik 7 aluminiozkoak dira, eta 3, altzairu ijeztuzkoak. Jakin behar dugu aluminioak 500 urtez hondakina izaten jarraitzen duela eta altzairuaren ekoizpena oso prozesu kutsagarria dela. Hortaz, garrantzitsua da kontsumo arduratsua egitea: ahal den neurrian itzultzeko ontziak erabiltzea, eskulanak eginez berrerabiltzea eta birziklatze zuzenean parte hartzea.

Aluminiozko lata



Aluminioaren erauzketak ingurumen-kostu handia dakar; izan ere, tona bat aluminio lortzeko, gutxi gorabehera 4.000 kilo bauxita (oihaneko zorupean dagoen minerala) eta 500 kilo petrolio-koke erauzi behar dira.

Aluminioa nahi adina aldiz birzikla daiteke, bere ezaugarriak eusten dielako beti. Aluminioz egindako produktuen % 50 aluminio birziklatutik dator. Merkatuan dagoen aluminioaren % 75 duela 100 urte fabrikatu zen. Espainian, aluminiozko laten birziklatzea % 67ra heltzen da, eta herrialde batzuetan proportzioa % 90raino igotzen da.

Altzairu iieztuzko latak (metalezko edo latorrizko latak ere esaten zaie)



Metalezko latak birziklatzea oso prozesu garestia

eta kutsagarri samarra da, baina altzairua fabrikatzea baino askoz gutxiago, zeren eta siderurgiak kutsadura handia sortzen duten enpresak baitira.

PAPERA ETA KARTOIA BIRZIKLATZEARI BURUZ

Basoen eta paperaren etorkizuna ez da oso oparoa; izan ere, kontsumo-erritmoak eta -moduak orain arte bezala jarraitzen badute, zura fabrikatzeko erabilgarriak diren zuhaitz-espezieen kopurua % 40 murriztuko da.

Basoak desagertzearen ondorioz, berotegi-efektua areagotuko da, basamortuek aurrera egingo dute, munduko gosea handituko da eta abar. Paper erabili gehiago berreskuratu, berrerabili eta birziklatu behar dugu premiak asetzeko eta gure basoen eta bertako faunaren desagertzea saihesteko.

Erabili paper birziklatua ahal duzun guztietan. Haren abantailak begi-bistakoak dira: zuhaitz gutxiago moztu behar da eta energia aurrezten da. Iberiar penintsulan ekoiztutako paperaren % 43 berreskuratzen da; horrek esan nahi du erdia baino

gehiago zaborretara botatzen dela.

MUGIKORRAK BIRZIKLATZEARI BURUZ

Urtero gutxi gorabehera 50 milioi tona hondakin elektronikoen sortzen dira munduan, eta % 70 eta % 90 bitartean tratamendu egokiarekin berrerabil litezke.

Horrelako hondarren kopurua handitzeak oso osagai kutsagarriak hedatzea dakar, adibidez, merkurioa, litioa edo koltana; material horiek behar bezala tratatu ezean, ingurumenerako eta osasunerako kaltegarriak izan daitezke. Espainian bakarrik, telefono mugikorrak birziklatzeak 60.000 tona CO₂ isurtzea ekiditen du. Mugikorbateria batek daukan kadmioak 600.000 litro ur ere kutsa litzake (gutxi gorabehera 2.600 bainuontziren baliokidea).

Zaborra ez da aukera egokia jada nahi ez dugun edo balio ez dugun mugikorrerako. Mugikorrak birziklatzeko plan bat daukan GKE bati laga diezaiokegu; esate baterako, Oxfam Intermóni eta Amnistia Internazionalari. Lortzen den dirua zenbait kausatarako ematen da dohaintzan.

Garrantzitsua da jakitea kasu horietan badagoela gure telefonoa ez desmuntatzeko aukera; aitzitik, bigarren bizitza bat eduki dezake beste norbaiten esku. Horregatik, ez ahaztu fabrikako doikuntzak berrezarri behar ditugula eman baino lehen, gure datu pertsonalak arriskuan ez jartzeko helburuarekin.

HONDAKIN ORGANIKOEI BURUZ. KONPOSTAJEA

Etxean sortzen ditugun hondakinen % 50 inguru gai organikoak dira. Hondakin horiek eraldatzen eta birziklatzen errazena dira, konpostaje-prozesu izenekoaren bidez; horren bitartez, materia organikozko hondarrak eraginkorra den eta ingurumena errespetatzen duen ongarria bihurtzen dira: KONPOSTA.

Gai organikoak banandu, eta Administrazioak kudeatutako konpostaje-instalazioetara helaraz ditzakegu, edo geure konposta egin dezakegu etxeko konpostontziez.

Teknologia sinplea eta ekonomikoa da edozein motatako zabor biodegradagarria aprobetxatzeko eta erabilera praktiko bat emateko. Gainera, horrela zaborte-gietan lekua okupatzea ekiditen da.

ZER EGIN DEZAKET NIK? NON BOTAKO DUT?

ONTZI ARINAK. Gogoratu ontziak zanpatu behar direla bolumena murrizteko.



BAI

- Plastikozko ontziak eta poltsak
- Tetrabrikak
- Latak eta aerosolak
- Plastikozko edo kortxo zurizko erretiluak
- Metalezko estalkiak eta xaflak
- Aluminio-papera
- ~~Etxeko~~ jatorrizko plastikozko potoak eta loreontziak
-  Sinbolo hau daukan edozein ontzi arin

EZ

- Kasete-zintak, VHSak
- CDak, DVDak eta disketeak
- Ontziak ez diren plastikoak
- Jostailuak
- Ehunak eta zapatak
- Ontzi beteak
- Produktu toxikoen ontziak

BEIRA. Gogoratu beirazko ontzi hutsak bota behar direla, tapoi eta estalkirik gabe.



BAI

- Beirazko botilak

- Beirazko potoak
- Beirazko beste ontzi batzuk eta aerosolak
- Sinbolo hau daukan beirazko edozein ontzi

EZ

- Bonbillak eta fluoreszenteak
- Kristal lauak eta ispiluak
- Zeramika eta portzelana
- Platerak, kopak eta edalontziak

PAPERA ETA KAR



tzitsua da kartoia tolestea, horrela gehiago sartuko

baita edukiontzian.

BAI

- Paperezko orriak
- Egunkariak eta aldizkariak
- Kartoizko kutxak
- Biltzeko papera
- Sinbolo hau daukan paperezko edo kartoizko edozein ontzi

EZ

- Tetrabrikak
- Aluminio-papera edo paper plastifikatua
- Paper zikina (olioa, pintura, janaria eta abar)
- Paperezko zapiak eta eskuoihalak
- Sukaldeko papera
- Libretetako espiralak

ORGANIKOA. Gogoratu hondar organikoez landareentzako ongarria egin daitekeela.

BAI

- Fruta- eta barazki-hondarrak
- Haragi- eta arrain-hondarrak

- Ogi-hondarrak eta janari-hondarrak oro har
- Paperezko zapiak
- Janariz zikindutako sukaldeko papera
- Kafe- eta infusio-hondarrak
- Landare-hondar txikiak

EZ

- Pixoihalak, konpresak eta tanpoiak
- Janari likidoen eta olioien hondarrak
- Erraztatzeoko hautsa eta xurgagailu-poltsak
- Errautsa eta zigarro-mutxikinak
- Pestizidez tratatutako landare-hondarrak
- Tratatutako egurrak
- Sendagaiak
- Gorozkiak eta bestelako animalia-hondarrak
- Ehunak eta larruzko gaiak



SUKALDEKO OLIO ERABILIA.

BAI

- Utzi flasko itxi batean bilketa-gune batean edo aurkitu nola birziklatzen den zure hirian

EZ

- Ez bota inoiz harraskara edo komunera

ERREFUSA

Errefusa beste edukiontzi batera joan ezin dena da. Gogoratu materia organikoa edukiontzi horretan utz dezakezula horretako edukiontzirik ez badaukazu.



BAI

- Pixoihalak, konpresak eta tanpoiak
- Errautsa eta zigarro-mutxikinak
- Jostailu apurtuak
- Erraztatzeoko hautsa eta xurgagailu-poltsak
- Zeramika eta portzelana
- Kristalezko platerak, edalontziak eta kopak
- Animalien gorozkiak

EZ

- Beira
- Papera eta kartoia
- Ontzi arinak
- Hondakin arriskutsuak
- Aparatu elektriko eta elektronikoak



ARROPA ETA OINETAKOAK.

Arropa eta oinetakoak egoera onean uzten badituzu, behar dituzten beste pertsona batzuek erabili ahalko dituzte. Zure arroparen bizitza luzatuko duzu eta kolektibo behartsuetako pertsoneri berriro laneratzen lagundu diezu, gizarte-lanak egiten dituzten erakundeen bitartez.

BAI

- Egoera onean dauden arropa eta zapatak (plastikozko poltsa itxien barruan)
- Eskuko poltsak, bizkar-zorroak, gerrikoak eta abar

- Tapakiak eta izarak

EZ

- Trapu zaharrak
- Egoera txarrean dauden arropa edo oinetakoak

APARATU ELEKTRIKO ETA ELEKTRONIKOAK.

Funtzionatzeko korrante elektrikora konektatuta egon behar duten edo pilak edo bateriak daramatzaten aparatu txiki eta handi guztiak dira. Aparatua oraindik baldin badabil, lehenengo eta behin pentsa ezazu ea eman, oparitu edo eskugainean sal dezakezun.

BAI

- Aparatu berri bat erosten duzun saltokira eraman ditzakezu. Aparatu txikiak azalera handietara eraman ditzakezu, nahiz eta berririk ez erosi.
- Zure herriko puntu berdera eraman ditzakezu. Aparatu txikiak birziklatze-kamioira ere eraman daitezke.

EZ

- Ezin dituzu edukiontzietara bota edo kalean utzi
- Ez dira trasteak biltzeko zerbitzuaren bidez biltzen

BESTE HONDAKIN BATZUK:

Sendagai iraungiak, farmazia-produktuen hondarrak,  ez duzun edozein

sendagai eta haien ontziak farmazietan biltzen dira.

Bonbilla eta fluoreszenteetarako, bilketa-guneak aurkituko dituzu etxetresna elektrikoen saltokietan eta zenbait lokal publikotan (auzoko etxeetan, merkatuetan, bulegoetan...). Halaber, puntu berdeetara eta birziklatze-kamioira eraman ditzakezu.



Pila eta baterietarako bilketa-guneak daude dendetan, azalera handietan, supermerkatuetan, eraikin publiko batzuetan, parke berdeetan eta birziklatze-



kamioietan. Ez bota zakarretara.

GEHIAGO JAKITEKO...

Zuretzat interesgarriak izan daitezkeen webguneak:

- [Ecología Verde](#)
- [Arpal. Aluminiozko produktuak birziklatzeko elkarte](#)
- [Oxfam Intermón. Zergatik da garrantzitsua papera birziklatzea?](#)
- [Nola birziklatu papera eta kartoia](#)
- [Mugikorra birziklatzeari buruz: gatazkarik gabeko teknologia](#)
- [Zure mugikor zaharraz bizitzak alda ditzakezu](#)
- [Nola sailkatu hondakinak etxean](#)

Gomendatzen da pelikula eta bideo hauek ikustea gelan gogoeta egiteko

- [Plastikoaren birziklatzea eta ekoizpen-prozesua](#)
- [HazteEco. Zenbat bizitza ditu lata batek?](#)

Esteka hauetan aluminioa birziklatzeko ideiak aurkituko dituzu:

- [Ecoinventos. Aluminioa birziklatzeko ideiak](#)
- [Aluminiozko latak berrerabiltzeko sormenezko 10 modu](#)

Konpostajeari buruzko informazio gehiago:

- [Amigos de la Tierra. Murritz, berrerabili, konpostatu](#)
- [ConcienciaEco. Konpostajea](#)